AMESLARIOK... ZER BERRI?

Herri Ametsa Ikastola
Ikastola txikia, familia handia

ASTEKARIA: 49. atala | DATA: 2025/10/17

GUREAN

ERRIGORA

Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz.

Errigoran bi kanpaina nagusi egiten dituzte urtero. Garai honetan, udazkenekoa. Urriaren 23tik azaroaren 13ra, Agerreko uzta euskarari puzka: Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuz osatutako saskiak milaka etxetara eramaten dituzte, eta, auzolanari esker, bertako euskalgintzari ekarpen ekonomiko garrantzitsua egiten zaio (saski bakoitzaren balioaren %25). Ekarpen hori ezinbestekoa da zonaldeko ikastolentzat eta AEK-ren euskaltegientzat, baita sare publikoan D eredua sustatzeko dinamikentzat ere. Eskaerak online egiten dria eta jasotzeko gunea ikastola bera da.

INFO+

GURE INGURUAN

NAFARROA OINEZ

NOIZ: AZAROAK 19
NON: ATARRABIA

Nafarroa Oinez badator! Igande honetan, Atarrabiara hurbiltzen direnentzat, 2,8 km-ko ibilbide inklusiboa, hiri-profilekoa eta ez zirkularra prestatu dute. Bisitariak oinez sartu ahal izango dira hiru gune berezitara, eta bertan hainbat jarduera egingo dira. Musika, tailerrak, dantzak, janari eta edari postuak... Primeran pasatzeko osagai guztiak! Buruz, bihotzez, oinez!

oinez

INFO+

ZER PROPASATZEN DUZU?

Hemendik aurrera hauxe izango da zuen txokoa. Familia, ikasle, irakasle eta langile guztiek hartu dezakete parte astekarian. Edozein abisu, iragarki, proposamen edo plan guri helarazi eta astekarian argitaratuko dugu. Denon artean bizirik mantenduko dugu proiektua!

ZUEN PROPOSAMENAK HONA BIDALI:
melvira@herriametsa.eus